



Zinema bete bunbuilo

Hellboy, *the golden arm*; *Wanted*; eta *Batman*, *the dark knight* izan dira zinema aretoetan ikusgai orain gutxi, eta *The Spirit*, *Dragonball*, eta *Watchmen* etorriko dira hemendik aurrera. Komikietan oinarritutako filmak dira denak, eta Hollywooden indarra hartuz doan joera baten erakusle dira, komikietako pertsonaien bunbuiloaz ari baitira betetzen zinemako karteldegia.

IÑIGO ASTIZ

EZ DA FENOMENO BERRIA. Zinemagintzak beti izan du begi bat komikigintzari begira. Handik edan du, maiz, eta handik hartu izan ditu zenbait pertsonaia eta istorioren oinarriak. Baina azkenaldian, begia inoiz baino adiago duela dirudi. Asko dira, izan ere, zinemaratzen ari diren komikiak hila-beteotan. Haietako batzuk, gainera, ez dira edozelangoak, autore-komikiak dei ditzakegunak baizik, hau da, egile edo gidogile zehatz baten eskua nabarmen ageri duten lanak.

Pantaila handira heldu diren azken izenburuei begiratzuz gero Frank Miller komikigilearen izena hainbatetan ageri da, bere komikiei egin zaizkien moldaketak direla eta: *300*; *Sin City*; *Batman*, *the Dark knight*.

**Zinemaratzen ari diren
komikien artean batzuk
autore komiki modura
sailka daitezke, egilearen
eskua nabarmen ageri
duten lanak**

Ez da bakarra. Hor daude Mike Mignolaren *Hellboy*; Mark Millar-en *Wanted* eta Alan Moore-n *V for Vendetta*, batzuk baino ez aipatzearren. Ez dira gutxi hemendik aurrera etorriko direnak ere; Moore-n gidoiarekin eta Dave Gibbonsen marrazkiekin osatutako *Watchmen* sonatua moldatu du Zack Zinder zinemagileak, eta Will Eisner-en *The Spirit* Frank Miller-ek. Akira Toriyamaren *Dragonball* manga komikian oinarritutako filma ere prestatu du James Wong zuzendaria datorren apirilera.

Komikigintzan modu batera edo bestera murgildutako hiru pertsonarekin hitz egin dugu komikiak zinemaratzeko joera hau aztertzeke: Fernando Tarancón Bilboko Joker komiki dendako arduradu-



Komikitik zinemara

narekin, Laureano Domínguez Astiberri komiki argitaletxeko editorea-rekin, eta Igor Leturia zalearekin.

Gorakadaren arrazoiak

Hiru arrazoi aipatu ditu Tarancónek. “Orain dela hamar urtera arte ez zegoen super heroiei buruzko pelikulak egiteko teknologiarik. Orain badago, eta hori da azkenaldian gisa honetako gero eta film gehiago agertzeko lehen arrazoa. Hollywoodek bizi duen sorkuntza idorreria da bigarrena. Klasikoen *remake*ak egiteari ekin zioten lehenik, telesailak moldatzeari gero, eta komikiaren txanda da orain. Hirugarren arrazoa, zera da: komikiaren hizkuntzarekin hezitako gidoi-gile, produktore eta zuzendari belaunaldi berria dagoela; orain arte ez zegoen”.

“Orain dela gutxira arte ezinezkoa zen halako filmak egitea”, dio Astiberri argitaletxeko Laureano Domínguezek. “Zinemara edozein komikiren moldaketa ikustera joateak barre-gura sor zezakeen; gaur egun efektu bereziekin errazagoa da. Topera dabilta horretan: pelikula bateko kredituetan saileko bigarrena izango denarekin lotuz, adibidez”.

Komikigintzak azken hiru hamarkadetan izandako eboluzioa gehitu dio zerrendari Igor Leturiak. “Lehen ia umorezko edo abenturazko komiki seriatuak besterik ez zeuden tokian, bestelako komikiak sortzen joan dira: *undergrounda*, autore-komikia, nobela grafikoa... eta honek heldutasuna eta aintzat hartzea ekarri du. Azken urteotan komikia momentu onean dago gainera, bai sorkuntza aldetik baita jarraitzaile eta salmenta aldetik ere”.

Ezkerrean *Hellboy*, *The Spirit*, *V for Vendetta* eta *Watchmen* komikietako marrazkiak. Eskuineko zutabeko irudietan berriz, bakoitzak zinemara jauzi egin ondoren hartu duen itxura ikus daiteke.

Egia da, bere iritziz, inoiz baino autore-komiki gehiago moldatzen direla orain zinemarako, baina dioenez, proportzio kontua da. “Zinemak betidanik erabili du komikia inspirazio iturritzat, eta ez soilik *mainstreama*, neurri txikiagoan bada ere, baita autore-komikia edo komiki alternatiboa ere. Orain gertatzen da inoiz baino film gehiago egiten direla komikietan oinarrituta, eta horregatik autore-komiki asko ikusten ari garela, baina nik uste dut proportzioa betikoa dela”.

Domínguez ustez, azkenaldiko moldaketak ezberdinak dira orain arte egindakoe-kin alderatuta. Itxuran soilik, ordea, sako-nean berdinak izaten jarraitzen baitute. “Komikiaren estetikara gehiago hurbiltzen saiatzen dira orain, inoiz biñeta bere horretan pantailaratuz, baina akzioaren aldeko apustua da oraindik ere nagusi. Bizkarra ematen zaie sakontasun handiagoko istorioei”. Hollywoodek bizi duen infantilizazioaren erakusgarri da hori, bere hitzetan. “Hollywoodek ez dago akzioaz harago doan zinemarik. Nerabeak dira euren merkatua,

eta oso zaila da gaur egun egiten dituzten filmen artean istorio onik aurkitzea”.

Teknologiak erraztu egin du komikia pantaila handira eramatea; gainera, Hollywoodek bizi duen sorkuntza idorreriarekin alderatuta ideia freskoak dakartzate komikiek

Ikusleen arreta

Komikietara jende are gehiago hurbiltzea ekarriko dute moldaketek, Leturiaren iritziz: “Film ganorazkoak egiten badira bai behintzat”. Dioenez kalitateak gora egin du azkenaldian. “Argitaletxe eta egileei diru-sarreraren handitzea ekarriko die, normalean film bat egiten denean komikien berrargitarapenak egiten baitira. Agian zinemaratzeek emandako diruarekin apustu gehiago egin ahal izango dituzte. Baina egia da, diruaren usainera, beste argitaletxe klasi-koago batzuk ere hurbildu direla, eta izan daiteke une honetan aukera gehiago egotea. Baina horiek segituan egiten dute alde gauzak okertzen direnean”.

Tarancónek zuzenean sumatzen du bere dendan zinemarako moldaketek jendearen gan arreta pizten duten edo ez. Kasuaren arabera da, baina egia da komiki batzuk gehiago saltzen direla pantaila handiko estreinaldien ondorioz. Hala izan da Frank Millerren *300*en, eta Allan Mooren *V for Vendetta*ren kasuan. “Pelikula egin baino askoz ere lehenago ongi saltzen ziren, klasi-koak dira, baina filma atera zenean argitaratu berriak balira bezala saldu ziren”. 2009an

helduko da *Watchmen* komikian oinarritutako filma aretoetara, baina jadanik arreta handia piztu du, eta gehiago saltzen da dagoeneko.

“*Watchmen*en milioi bat kopia saldu dira berriki –dio Domínguezek–, eta hori aurrerapena baino ez dela ateratzen! Bitxia da, duela hainbeste urte [1986-87an] argitaratutako lana izanda”. Astiberri argitaletxeak ez die, ordea, moldaketei gehiegi erreparatzen. “Guk argitaratutako *Historia Violenta* liburuak bazuen ongi saldu zen pelikula bat. Hor zegoen, eta poztu egin ginen, baina liburuak ez genuen horregatik erosi, istorioa gustatu zitzaigulako baizik. Liburuak gustuko ez badugu, munduko moldaketarik onena baldin badu ere, ez dugu erosiko. Hori bai, liburuak argitaratu eta moldaketa baldin badago, *aleluia*”.

Hedabideetan lortzen den arreta da giltza, Tarancónek dioenez. “Zinemaratzeen ondorioz pisu gehiago lortzen dute komikiek, eta horrek lagundu egiten du salmentek gora egin dezaten, atzean produktu ona baldin badago, noski”. Hala gertatu zen Marjane Satrapiren *Persepolis* izeneko komiki saila hartuta autoreak berak egindako moldaketarekin. Pelikula ateratzen zenean, 1979ko iraultza bizi izan zuen emakume irandar baten istorioa kontatzen zuela esan zuten medioek, eta komiki batean zegoela oinarritua. Arreta hori laguntza handikoa izan zen nobela grafikoa gehiago sal zedin.

Salmenten igoerak AEBetako hainbat autoreen sorkuntzan ere eragin du jadanik, Tarancónek arabera: Ipar Amerikako merkatuan, gaur egun badaude zinemaren pentsatuz sortzen duten komikigileak, jadanik sortuta dauden pertsonaiekin lan egin beharrean, berriak sortzen dituzte, eskubiak garestiago saltzen direlako.

Komikizalea filmaren aurrean

“Moldaketak horixe izan behar luke, moldaketa bat”, dio Tarancónek. “Hizkuntza

ezberdinak dira, eta egitura dramatiko diferenteak erabiltzen dituzte. Batetik bestera jotzerakoan beti egin behar dira aldaketak. Bistan da, produktu beretik abiatuta oso gauza ezberdinak egin daitezkeela. Tim Burtonen *Batman* dago, alde batetik, eta bestetik, *Batman Returns* eta halako ume mokoentzako egokitzapenak”. Tim Burtonena, adibidez, ez da Batmanen moldaketa egitea, baizik eta “Batman hartu eta Tim Burtonen mundura eramatea” Tarancónek ustez. “Oso film ona iruditzen zait, baina ez Batmanen film oso ona, Tim Burtonena baizik. Gehiago interesatzen zait Coppolaren *Aitabitxia*, Mario Puzoren nobelakoa baino”.

Neurri baterainoko moldaketa egitea ulergarria da Leturiaren iritziz ere, hizkuntza bakoitzak bere baliabideak dituelako. “Baina –dioenez– moldaketak interes komertzialengatik egin badira, *malo*... Eta denetarik dago, ona eta txarra”. Azkenaldian kalitateak hobera egin duela uste badu ere, komikizale gisa ongi prestatuta joaten da pantaila handiaren tamainara egokitutako komikiak ikustera. “Gaur egun, Interneti esker, aurrez kritikak irakurri eta trailerrak ikusten ditut, eta horren arabera ilusioz edo beldurrez joaten naiz zinemara”. ■



Argitaletxearen azken argitalpenak

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com eskura ditzakezu



Thapi Zaharra
Varios Autores



Belgrado
Angélica Liddell



Kiseyren Showa
Jesús Díez



Le Educada Viola
Antonio Noceda Arias

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbo / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com